

GI PUZKOA ETA EUROPAR BATASUNA



29. Informazio Buletina
2008ko Azaroa-Abendua





NABARMENDU BEHARREKOA

Hazkundera eta enplegua berreskuratzeko Europar Batasunaren plana

Europar Batasunak, azaroaren amaieran, Plan Integrala aurkeztu du Europari egungo krisi ekonomikotik ateratzen laguntzeko. Planean bi elementu nagusi biltzen dira, eta bata bestea indartzen du. Lehenik eta behin, epe laburrerako neurriak aipatzen dira, eskaera bultzatu, enplegua salbatu eta konfiantza ezartzen laguntzarren. Bigarren, inbertsio-ekintzak daude, epe luzean hazkunde handiagoa eta oparotasun iraunkorragoa lortzeko.

Planean, aldi baterako zerga-estimulua ezartzen da, 200.000 milioi euro ingurukoa; hau da, EBko BPGd-aren % 1,5. Eta hori aurrekontu nazionalen (170 mila milioi, BPGd-aren % 1,2) zein EBko aurrekontuen eta Europako Inbertsio Bankuaren kontura izango litzateke (30.000 milioi inguru, BPGd-aren % 0,3).

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2008:0800:FIN:ES:PDF>

Europako eskualdeak 2020

Europar Batasuneko Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusiak argitaratutako «Eskualdeak 2020» txostenean aztertu da egun Europak aurrean dituen lau erronka handienek eskualdeetan zer-nolako eragina izan dezaketean; hain zuzen ere, globalizazioak, aldaketa demografikoak, klima-aldaketak eta energia-hornidurak.

Adierazle-multzok batzuk kontuan hartuta, txostenean zehazten da Europako eskualde ezberdinek erronka horien aurrean duten gaurkotasan maila, eta horiek EBn sor ditzaketean desberdintasunak aztertu dira. Ondorio horiek Europako kohesio-politikaren etorkizunari buruzko hausnarketa-prozesura gehituko dira.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2008:0800:FIN:ES:PDF>

Tokiko plangintza eta kudeaketa estrategikoa Gipuzkoan

Abenduaren 12an argitaratu da GAOn Gipuzkoako toki-erakundeetan helburuen eta emaitzen kudeaketa bultzatzeko planak eta proiektuak garatzeko programan 2009ko urteari dagokion deialdia. Deialdi hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 25eko akordioaren arabera da.

Programa iaz jarri zen abian, Ogasun eta Finantza Departamentuak bultzatuta. Programak 340.000 euroko baliabideak ditu, egindako ekintzak partzialki finantzatzeko (% 50 eta % 75 artean). Eskaerak aurkezteko epea bi hilabetekoa da.

Informazio gehiago:

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2008/12/12/be081212.htm>



KOHESIO-POLITIKA

Kohesio politika eta berreskuratze ekonomikoa

Berreskuratze Ekonomikoaren Europar Planera kohesio-politikak egindako ekarpenari buruzko jakinarazpena egin du Europar Batasunak. Helburu nagusia estatu-kideei ordainketak azkartzea da Egitura Funtsetarako sarrera erraztea (aurrefinantzaketaren % 5) da, modu horretan proiektuak bizkorrago gauzatuko baitira.

Inbertsioak enplegua sortzeko eta hazkunde iraunkorra indartzeko dira, Lisboako Estrategiako lehentasunak bultzatuta, hala nola azpiegitura modernoek sareak, banda zabalerako sarrera, enpresa txikientzako babesa, berrikuntza, ingurumena, giza baliabideak eta prestakuntza.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/funds/recovery/index_en.htm

2000-2006 programazio denboraldiaren amaiera

“2000-2006 programazio-denboraldia ondo ixtea” izeneko mintegiko galdera-erantzunak argitaratu dira.

Mintegia irailean egin zen, eta Egitura Funtzak kudeatzeko eta ordaintzeko arduradunek eta kudeaketan eta ordainketan agintari arduradunek parte hartu zuten.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/closure/qa_en.htm

Etxebizitzetako eraginkortasun energetikoa bultzatzea

Eraikinek ekoizten dute Europar Batasuneko berotegi-efektuko gas-igorpenen % 40. Eraikinetan energia gehiegi galtzen jarraitzen da, argiei eta berotzeko eta airea egokitzeko sistema ez eraginkorrek direla-eta.

Ildo horretatik, EBren Egitura Funtsetako laguntzek EGEF laguntza zuzentzeko aukera emango dute lehen aldiz, EB-27ren baitan, eraikin-mota guztietan (eta errenta baxuko etxeetan) eraginkortasun energetikoan eta energia berriztagarrietan inbertitzeko.

Zehazki, batera finantzatu ahal izango dira, esate baterako, nazioko, eskualdeko edo tokiko neurriak, hormak, sabaiak eta leihoak (beira bikoitza) isolatzeko edo eguzki-panelak jartzeko eta galdaren ordez eraginkortasun energetiko handiagokoak ezartzeko.



KOMUNITATEKO POLITIKAK

Europar Batasunaren 2009 Programa

Europar Batasunak 2009. urterako (aginteko azken urtea) dituen lehentasunak lau eremutan oinarritzen dira: hazkundera eta enplegua, neurriak aplikatzea arlo energetikoan eta klima-aldaketan, ekintzak zuzenean hiritarengan zentralizatzea eta nazioartean mundu-mailako bazkide izatea.

Hiritarrak agertzen dira europar proiektuaren gune gisa. Hiritarren inguruko eremuetako politikak egin nahi dira, hala nola funtsezko eskubideak eta hiritarrak, migrazioa, justizia, segurtasuna, kontsumitzaileen babesa eta osasuna.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/atwork/programmes/docs/clwp2009_es.pdf

Europako trenbide sarea merkantzien garraio lehiakorrerako

Europar Batasunaren Araudi proposamenean ezartzen dira Europako trenbide-sarea sortzeko eta antolatzeko arauak, merkantziak trenez eramateko garraioa lehiakorra izan dadin, nazioarteko trenbide-korridoreek osatuta.

Era berean, merkantzien korridoreak hautatzeko eta antolatzeko arauak ezartzen ditu, baita inbertsioak planifikatzearen, eta edukierak eta trafikoa kudeatzearen inguruko printzipio harmonizatuak ere.

Araudia merkantzien trenbide-garraioa garatzeko eta garraio iraunkorraren sistema sortzeko erronkei erantzuteko sortu da, berotegi-efektuko gasak murrizteko eta ekonomian ingurumen-jokabidea hobetzeko konpromisoak errespetatzeko premiaren ondorioz.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/closure/qa_en.htm

Eraginkortasun energetikoa: % 20ko helburua lortzea

Komunikazioan esaten da Europako agintariak lehentasunezko energiaren kontsumoa 2020. urterako % 20 murrizteko konpromisoa hartu zutela, aurreikusitako proiektzioen aurrean. Eraginkortasun energetikoa gehitzea da energiaren kontsumoa murrizteko dagoen modurik errentagarriena, aldi berean jarduera ekonomikoan maila baliokidea baldin bada. Gehitze horri esker, klima-aldaketaren, segurtasun energetikoaren eta lehiakortasunaren inguruko erronkei urre egingo litzaieke.

Komunitateko arduradunek nabarmentzen dute eraginkortasun energetikoa gehitu behar dela 2020. urterako «20-20-20» helburuen zati gisa; hau da, lehentasunezko energiaren kontsumoa % 20 murriztea, berotegi-efektuko gasen igorpena % 20 murriztea eta energia berriztagarriak % 20 izatea 2020rako.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2008:0772:FIN:ES:PDF>



Enplegu erronkak Europan

Europar Batasunak enpleguaren inguruan emandako mezu giltzarrietan ingurune ekonomikoaren hondamendia hartzen da kontuan. Langabezia gehitzen ari da, eta hirugarren herrialdeetako langileak EBn gero eta gehiago izatea eta azken zabalkundearen ondorioz komunitateko mugikortasuna gehitzea dira hazkunde ekonomikoaren eta azken urteetako enpleguaren emaitzen faktore erabakigarri garrantzitsuenak; baita ere, EBko baldintza ekonomiko eta sozialak zentzu zabalean eratzten ari direnak.

Halaber, egoera honen bidez sortutako erronka politiko garrantzitsuak identifikatu dira. EBren erantzun politiko garrantzitsua izan dira malgusegurtasun neurriak, eta, neurri horien abantailak aintzat hartuta, lanpostuen kalitatea eta honako hauen hobekuntza nabarmentzen dira: eskaera eta enplegu-eskaintzaren eta trantsizioen arteko egokitzapena, hezkuntza eta enpleguaren arteko egokitzapena eta kualifikazioen hobekuntza.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2008:0758:FIN:ES:PDF>





E-LIBURUTEGIA

Gipuzkoako Foru Ogasunaren urteko txostena

Gipuzkoako Foru Ogasunaren 2007. urteko txostenean jasotzen da urte horretako Ogasun publikoaren jardueraren gaineko informazio osoa eta zehaztua. Edukia bi atal handitan banatzen da: lehendabizikoan, zerga-arloko irudi nagusien analisia egiten da (PFEZ, Ondarea, Zerga Sozietateak eta Pizgarriak eta BEZ), eta, bigarreanean, Foru Ogasunak garatutako finantza eta zerga jarduera azaltzen da.

Era berean, udal-estatistiken eta argitaratutako zerga-xedapen nagusien inguruko bi eranskin agertzen dira.

Informazio gehiago:

<http://www.gipuzkoa.net/DFG/ogasuna-e.html>

Udalgida: hiritarren parte hartzea

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak argitaratutako UdalGIDA aldizkariaren 19. alean, Gipuzkoako udalentsat garrantzitsuak diren bi ekimen abian jarriko direla esaten da.

Proiektuak hiritarren parte hartzearen (politika-kultura berria partekatutako lidergo testuinguruan) eta gizarte-zerbitzuen tokiko kudeaketa hobetzearen (adierazleen eredia ezarriko da Gizarte Zerbitzuen kudeaketa alderatzeko) ingurukoak dira.

Era berean, ohiko atalak agertzen dira: albiste laburrak, estatistikak, legedia, kontsultak eta ebazpenak, epaiak eta bibliografia.

Informazio gehiago:

<http://webwpub1.gipuzkoa.net/wps/portal/ogasuna/udalgida>

Zahartze aktiboaren alde

Europar Batasunaren 2008ko txosten demografikoaren arabera, gizartea adin gehiagora iristeak ondorio garrantzitsuak ditu ekonomiarentzat eta gizartearentzat, oro har. 1946 eta 1964 urte artean jaiotako baby boom-aren belaunaldia erretirora iristen ari da, eta, adinean aurrera doazen heinean, osasun-arreta, pentsioak, etxebizitzak eta gizarte-laguntza beharko dituzte, orain arte ezagutu gabeko eskalan. Bestalde, ordea, hori guztia ordaintzeko, lan egiteko moduko adina duten gutxi izango dira.

Horren aurrean, pertsona askok erretiroa aurrez hartzen badute ere, bi europarretatik batek lanean jarraitu nahi du derrigorrezko erretiro-garaitik aurrera, laurogeita hamarreko hamarkadan gertatu ez bezala, erretiro aurreratua indarra hartzen hasi baitzen.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=en&catId=89&newsId=419>



Bizi baldintzak Europan

Eurostat dokumentuak Estatu kideetako eta herrialde atxikigaietako bizi-baldintzen inguruko ikuspegi orokor zabala ematen du (adierazleak, koadroak eta grafikoak).

Hona hemen aztertutako bederatzi arloak: biztanleria, hezkuntza eta prestakuntza, lan-merkatua, errenta, txirotasuna eta kontsumoa, gizarte-babesa, osasuna eta segurtasuna, delituak eta justizia, informazioaren gizartea eta turismoa.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-DZ-08-001/EN/KS-DZ-08-001-EN.PDF

Europako kontuen auzitegia: urteko txostena

Kontuen Auzitegiaren urteko txostena Europar Batasunaren 2007ko aurrekontu orokorraren exekuzioari buruzkoa da, eta, beste gai askoren artean, kohesio-politika jorratzen da.

Ildo horretan, Kontuen Auzitegiak ikusi ditu egitura-funtsekin lotutako kudeaketan eta kontroletan egindako hobekuntzak, eta, gomendioen artean, aipatzen du hutsuneak prebenitu behar direla proiektu baten faserik goiztiarretan, sustatzaileekin parte hartuz eta lehen mailako kontrolak modu eraginkorrean funtzionatzea bermatuz.

Informazio gehiago:

<http://eca.europa.eu/portal/pls/portal/docs/1/1571578.PDF>





ADIERAZLEAK

Udalen BPG per capita

Eustat-ek argitaratu du Euskal Autonomia Erkidegoko udal BPG per capita, 2005. urteari dagokiona. Adierazle horrekin, udalerrri batean udalerrrian dauden enpresek sortutako aberastasuna neurtzen da, udalerrian bizi den pertsona bakoitzeko, baina, ildo horretan, errenta ez da agertzen.

Olaberriak du Euskal Autonomia Erkidegoko BPG per capita altuena. Ondoren, Zamudio eta Zierbena daude. Gipuzkoan, Aduna dago bigarren lekuan.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/elem/ele0004800/not0004870_e.html

BPG per capita europar batasunean

Eurostat-en argitalpenaren arabera, Europar Batasuneko estatu-kideen BPG per capita Luxenburgoko batez bestekoaren % 267 eta Bulgariako % 37ren inguruan dago, erosteko ahalmenaren parekotasun-terminoetan.

Luxenburgoren ondoren, lehen postuetan Irlanda (150), Holanda (131), Austria (124) eta Suedia (122) daude.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-08-112/EN/KS-SF-08-112-EN.PDF

Enpresa ez finantzarioen ondare kontua

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa ez finantzarioen 2006ko ondare-kontuek galeren eta irabazien balantzeei eta kontuei buruzko informazioa eskaintzen dute, Merkataritzako Erregistroetako kontabilitateko egoera-orriak kontuan hartuta.

Modu horretan, Gipuzkoako enpresen ondarea ia 43.000 milioi euro ingurukoa da. Aktibo finkoa 20.447 milioikoa da eta zirkulatzaila 22.500 milioikoa; maniobra-fondoa, berriz, 5.600 milioi eurokoa.

Informazio gehiago:

http://www.eustat.es/elem/ele0004800/not0004875_e.html